

MARKINA-XEMEIN / Ekintza ugari prestatu dira ' berba idatziak 2008 ' ekimenean

Markinan irakurzaletasuna areagotzeko aurkeztu dute programaren bigarren zatia.

MARKINA-XEMEIN.

'Berba Idatziak 2008' ekimenaren bigarren zatian izango diren ekintza programa aurkeztu dute Markina-Xemeingo Uhagon Kulturguneak, Herri Bibliotekak eta Udalaren Euskara Zerbitzuak. Azken egunotan haurrak jomuga izan ostean, apirilean helduen artean irakurzaletasunari bultzada emateko hainbat egitasmo desberdin antolatu dira.

Lehena gaur bertan izango da, 18:30etik aurrera Herri Bibliotekan. Gaztelerazko Irakurleen Txokoak Amélie Nothomb idazlearen ' Acido sulfúrico ' liburua jorratuko du, lehendabizikoz. Apirilaren 18an eta toki berean, helduentzat Munduko Kontu Kontalariak izango dira, gaueko 22:30ean. "Aurten Hegoamerikako bi kontalari izango digutu: Uruguaiko Soledad Felloza eta Argentinako José Campanari", azaldu dute.

Apirilaren 23an, Liburuaren Egunean, ' Irakurri, gozatu eta oparitu ' delako kanpainari hasiera emango zaio. "Egun horretan bibliotekatik liburuak eramatearren oparitxo bat emango dugu", gaineratu dute antolatzaileek. Apirilaren 25ean ' Apaizac Obeto ' esperientzian oinarritutako proiektzioa aurkeztuko du Ion Maiak Uhagon Kulturgunean; eta hurrengo egunean Herri Bibliotekan Euskerazko Irakurleen Txokoa izango da, Goizalde Landabaso kazetariaren ' Korte bat mesedez ' liburua landuko dutelarik. >i.f.